

## AZALAREN EGILEA

“Oharkabean pasatzen zaio herritarrari inguruan duen soinu guztia; utzikeria apur batez bizi dugun saturazioa da”

*Ainara LeGardonekin solasean*



Ander Gortazar Balerdi  
Arkitektoa

Jasotze-data: 2016-01-26

Onartze-data: 2016-01-28

Bere ibilbidea destilatze-prozesu pertsonal eta artistikoaren emaitza logikoa dela dio Ainara LeGardonek (Bilbo, 1976). Musika arkitektura aldizkari baten azalera ekarriz, musika eta soinuek hiriarekin duten harremanaz eta artistaren azken proiektuaz hitz egiteko parada izan dugu.

=====  
**Musika arkitekturari buruzko aldizkari baten azalean. Zertan dira berdin bi disziplinak?**

Gauza askotan. Musikaren bidez ere diseinatzen, proiektatzen eta eraikitzen dugu. Kontakizunak eta lekuak sortzen ditugu, jendeak babesa aurkitu eta goza dezan. Musikariok, zuok arkitektook bezala, material egokiak eta haiek konbinatzeko modurik onena aurkitu behar ditugu, esperientzia horrek itzala utz dezan hura bizi duenarengan.

**Rafa Rodrigok argazkia atera dion bodegoi edo natura hilak El deseo como cemento piezarako erabilitako dispositibo eta elementu guztiak erakusten ditu. Zergatik desioa? Zergatik zementua?**

Prozesuaren bukaera aldera iritsi nintzen izenburu horretara, ulertu nuenean zein materialekin ari nintzen lanean. Ez ziren soilik soinua, baziren hitzak eta istorioak ere. Baina pixkanaka garrantzia hartzen joan zena kontakizun-multzoa zen, ni neu eraikitzen ari nintzena eraikinei begiratzean, hiria behatzean (bertako historiaz informazioa bildu nuen, bertako monumentuen zergatiak, arkitekturaz, berezitasunez...); oinezkoak, jendea tranbian solasean, kafetegietan... Donostian elkarrizketen zatiak uler nitzakeen. Wrocławen soilik keinuak, tonua, testuingurua. Pieza horiek guztiak ez zuten bat egiten aglomeratzailerik gabe. Multzoari kohesioa ematen zion aglomeratzailea

nire fantasia zen, eta zentzumenen bidez jasotzen nuen hori interpretatzeko nuen modua bera: «Desioa —nire fantasia— zementu gisa —kohesionatzailea—».


Prozesua deskribatzeko erabili nuen eguneroko batean azaldu nuen interesatzen zitzaidana zera zela: «Gure artean eta haiekin [hiriarekin] elkarrizketan aritzea, hiriek eta istorioek hitz egiten duten hizkuntzaz. Batzuetan baldarra izanagatik abegikorra den lengoia bat, esanahiaren zati bat bakarrik gordetzen dugun hitz hautsiez osatua. Hala jarrai dezakegu fikzioak eraikitzen, eta ulertzen ez ditugun bizitzaren hutsune horiek zementuz betetzen».

**El deseo como cemento Wroclaweko egonaldi batean jaio zen, eta bertan zein Donostian grabatu zenuen. Hirien zein alderditan dago pieza oinarritua?**

Idea bi hiriok soinu-artearen bitartez lotzea zen. Piezaren emaitza ez da grabazio bat, soinu-ekintza edo soinu-performance bat baizik. Erabiltzen ditudan grabazioak bi hirietan hartu nituen, baina piezan hitzek (edo hobeki esanda, fonemek) ere parte hartzen dute, eta aurkitu nituen istorioen arrastoek eta imajinatu nituen beste zenbait, baita inguratzen gaituen soinu-paisaiari buruzko hausnarketa eta kritikak ere.

**Nolakoa izan zen sorkuntza-prozesua?**

Hirietan zehar oinez ibili nintzen zenbait astez, interesgarri zitzaidan soinu edo soinu-eszena oro grabatzen. Donostian, esate baterako, oihuka futboleko jokatzeko zebiltzan haur batzuk grabatu nituen Katalunia plazan, «baloiarekin jokatzeko debekatua dago» zioen kartel baten azpian. Baloiak San Inazio parrokiaren horman errebotatzen zuten, eta bururatu zitzaidan sarrerantz joan eta elizaren barruan gertatzen zena ikustea, grabagailua gelditu gabe. Eszena paregabe batekin egin nuen topo, errosarioaren otoitzarekin. Hamarnaka



Irudiaren egilea - Pirati

emakume soinu-koltxoi bihurtzen zen kantika hura ari ziren xuxurlatzen eta espazioaren erreberberazioak hitzak xurgatzen zituen, ulertezinak baina esanahiz beteak zeuden hitzak. Harrizko horma batek erabat ezberdinak ziren mundu bana, soinu-giro bana, bereizten zituen.

Adibide hori bezala, beste hainbat. Hainbeste izan zirenez, momentu batean paisaia batzuk ezabatu behar izan nituen. Bi hirien arteko hari batzuk lotzen joan nintzen, zein audio erabili eta zein ez esaten zidaten seinaleak bailiran. Hori guztia eguneroko batean dokumentatu nuen, eta prozesua poema eta hausnarketa txikiz osatu zen horrela.

Teknikoki, landa-grabazioen aukeraketa bat egin behar izan nuen: ordena logiko bat aukeratu, kasete formatura pasa, eta atentzioa eman zidaten istorio eta eszenekin lotzeko modua aurkitu. Hirietan aurkitu nituen objektu edo materialak ere erabili nahi izan nituen, bertan bizitako soinu-momentuak islatzeko. Adibidez, mikrofono baten gainazalarekin Zurriola hondartzako hondarra igurtzi nuen olatuen soinua islatzeko; hirietako zaharberritzeak —soinu-giro ohikoena eta ia konstantea— Wrocławen erosi eta Donostiako txirlaz bete nuen kristalezko ontzi bat bibraraziz islatu nituen. Bilaketak, saiakerak, akatsak, aurkikuntzak... prozesu horrek guztiak bi hilabete iraun zuen.

**Hirietako zaharberritze-lanak, arkitektura, komunikatzeko moduak islatzen ditu piezak. Konklusiorik atera al liteke? Norantz doa Hiria, ekosistema gisa?**

Ezberdintasunez izugarri gozatu banuen ere (gastronomia eta harekin lotutako ohiturak, arkitektura —ikaragarri berezia dena Wrocławen— eta abar), gauza batek harritu ninduen: elkarrengandik hain urrun dauden eta hain ezberdinak diren

bi tokitan «hiri-kontestu» hain homoginoa aurkitu izana. Nahi baino elementu komun gehiago dago, nire ustez. Badago halako frankizia multinazional parrastada bat, jantzi egiten gaituzte eta kafea ematen digute «gustatu behar zaigun moduan», eta dena antzekoegia bihurtzen dute. Horrek iradokitzen dit globalki pentsamendua bide beretik doala, bai han eta bai hemen berdin-berdin zehazten digutena.

Harritu ninduen ere zeinen oharkabean pasatzen zaion herritarrari inguruan duen soinua. Testuinguru saturatu batean bizi gara: musikak, doinuek, abestiek, soinuak, zaratak (ozen), ahotsak eta oihartzunek (mezu erreplikatuak) inguratzen gaituzte, zenbaitetan estutzeraino. Hala ere, saturazio horretara ohitu gara azkenerako eta utzikeria apur batez bizi dugu saturazio hori.

**Eta norantz doa hiria, Donostia? Zein aztarna utziko du hirian kultur hiriburutzak?**

Ikuspuntu pertsonal batetik hainbat aukera ari zaizkit sendotzen, proiektu ezberdinak egiteko, lengoia artistiko ezberdinetan ari diren sortzaile eta herritarrak aurkitzeko. Baina ikuspuntu orokorrago batetik, espero dut gai izango garela bestelako aztarna bat utzeko, aztarna hori ez dadin izan hiri garestiago eta eskuraezinago bat, halako makro-ekitaldiekin maiz gertatzen den moduan.

**Ainara LeGardonon «kultura» hitzaren kontzeptuaz galdetzea baizik ez zaigu falta.**

Garena egiten gaituena dela suposatzen dut, gure nortasuna osatzen duena: geure egiten dugun testuinguru hori, desikasten jakin beharrekoa dena, batzuetan ideia berriek aurrera egin dezaten.

===